



## **Donostia**

# **COVID-19 KRISIAREN ERAGINA HEZKUNTZAN**

## **Neurriak eta proposamenak**

COVID-19 pandemia krisia dela eta, haurrak etxean geratzeko agindua eman eta EAEko Hezkuntza sailak hezkuntza presentziala eten du. Beraz, alde batetik haur guztiek etxean geratu behar izan dute; eta ikasleek, etxetik jarraitu beharko dute beraien heziketa prozesua alarma egoerak iraun bitartean. Honek, praktikan, esan nahi duena da ikasleak etxetik egingo dutela “lan” eta irakasleek on-line (emaila, barne sareak, sare sozialak) bidaliko dietela egin beharreko lana. Gainera, ikastetxeak ixtearekin batera, bertako zerbitzu guztiak eten egin dira. Tartean, oinarrizkoa: jantoki zerbitzua.

Eguno krisi egoeran ikasleen ikasketa prozesuaren egunerokotasunaren etenak ahalik eta eragin txikiena izatea da hezkuntzaren helburua. Etxean daudela, egunero ikasteko ohiturari euts diezaiotela eta eskola jarduera modu ez presentzialean ahalik eta egokien egin dezatela. Telematikoki eta digitalki egiteko baliabidea nagusitu da.

Baina, egoera honek, hainbat gatazka eta gabezi sortu ditu:

### **IKT gabezia**

Hainbat hezkuntza komunitateetan, Internet arrakala uste baino handiagoa dela baieztatu ahal izan da. Baina ez bakarrik hori, gailuen (ordenagailu, tablet) gabeziarekin aurkitu gara ere. Errealitate hau existitu egiten da.

Eustaten arabera<sup>1</sup>, 2019an, EAEn, seme-alabak dituzten familiei dagokienez, %91,2k ordenagailua du etxean. Hau da, seme-alabak dituzten familien %8,8k ez dute ordenagailurik. Datu horiek Donostiara ekartzeko kontuan hartu behar dugu 2018an 35.545 ikasle matrikulatu zirela unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetan, horietako %40 eskola publikoan<sup>2</sup>. Eta modu estraofizialean biltzen ari garen ikastetxeetako datuen arabera, Donostian gune batzuetan ordenagailurik ez duten ikasle kopurua oso garrantzitsua da. Zenbaki horien atzean, alboratu ezin ditugun errealitateak daude. Ehunka haur donostiarri buruz ari gara.

Beraz, konfinamendu egoera honetan badira ikasketak etxetik jarraitu ezingo dituzten ikasleak. Neurria hartzeko garaian ez da kontuan hartu batzuentzat, hain egunerokoa den ordenagailua bezalako tresna, ez dagoela etxe guztietan. Baina ez hori bakarrik, krisi egoera honekin etxe askotan gurasoek ere telelana egin behar dute, eta denek dute ordenagailuaren beharra. Ondorioz, ikasteko adinean dauden haur bat baino gehiago dagoen etxeetan, ordenagailu bakarrarekin moldatzea ez da erraza izaten ari. Ikastetxe batzuek haien ikasleen esku jarri dituzte ordenagailu eramangarriak, ez da horrela izan aldiz kasu guztietan, eta ikasle askok arazo horrekin egin dute topo. Ondorioz, ikasle askok oraindik, etxeratu zirenetik 3 aste pasa direnean, ez dituzte on-line ikasketak jaso.

Honek, ikasleen arteko mailaketa sortu dezake. Izan ere, batzuek aurrera egingo dute on-line bidezko tresnekin, eta beste batzuek atzean gelditzeko arriskua izango dute.

Ikasle batzuen kasuan, gurasoak lan egitera behartuak egongo dira eta beraz, euren autonomiaren arabera, ez dute modu duinean ikasketa-egutegiaren jarraipena egiteko baldintzarik izango. Behar duten laguntza jasoko ez dutelako.

Honek atzean dauden ikasleak, atzerago gelditzeko arriskua ekarriko du.

Kasu batzuetan, inprimatzeko aukera eman dute eskolek, baina etxe guztietan ez da inprimagailurik eta ikasleak etxeko lanak paperean egiteko, on-line egitera behartuta daude. Eskuz lanak egitea eta haien lanak bikoiztuz.

---

1 [https://www.eustat.eus/elementos/Panorama-de-la-Sociedad-de-la-Informacion-Euskadi-2020-\(pdf,-3MB\)/inf0017264\\_c.pdf](https://www.eustat.eus/elementos/Panorama-de-la-Sociedad-de-la-Informacion-Euskadi-2020-(pdf,-3MB)/inf0017264_c.pdf)

2 Barómetro de Economía Urbana 2018, 54. orrialdea.  
[http://www.fomentosansebastian.eus/images/observatorio\\_urbano/datos\\_estadisticos/anuarios\\_economicos/Barometro\\_2018\\_ES.pdf](http://www.fomentosansebastian.eus/images/observatorio_urbano/datos_estadisticos/anuarios_economicos/Barometro_2018_ES.pdf)

## **Laguntzeko gaitasuna**

Hemen beste arazo batekin egiten dugu topo. Egun proposatutako on-line ikasketaren bidez, ikasleen guraso edo helduen esku utzi da etxeko lanean laguntza. Kasu askotan, hori erraz gauzatzekoa ez dela ikusi da. Alde batetik, guraso askok telematikoki egiten dute lana, beraz ezin laguntzen egon uneoro, zaila suertatzen ari baita gurasoentzat lanean egon eta “irakasle” lanak egitea aldi berean. Gainera momentu honetan ere, gurasoek gauza asko kudeatu behar dituzte etxean seme-alabekin, bai aisialdi aldetik, bai eta emozio aldetik eta denak uztartzea ez da erraza izaten ari. Ezarritako sistema honetan aurkitu dezakegun beste oztopo bat, gurasoen “gaitasun-maila” da. Horietako batzuek ez baitute izango, ez hizkuntza aldetik, ez ulermen aldetik haurrei laguntzeko mailarik, eta haurrek ezin izango dituzte lanak aurrera eraman. Kontuan izan behar da ere, ikastetxe batzuetan egun ikasle askok gela bertan “laguntzaileen” laguntza izan ohi dutela eskolak markatutako erritmoa jarraitu ahal izateko, eta hori egun jarri den on-line sistemarekin, etxe askotan gauzatu ezinik geratuko da.

Baztertutako bestelako kolektibo batzuetan (ijitoak, etorkinen familiak, adin txikikoen zaintza pisuak), egoera okerragoa izan daiteke. Haurtako asko ez daude alfabetatua, eta “etxerako lanak” egiteko gaitasunik ez dute, kide askotako familiak dira, eskola-materialik gabe...

Arazo honekin berriro ere, atzean geratzen ari ziren ikasleak, haien ikaskideekiko atzerago gelditzeko arriskua izango dute.

## **Elikadura eskubidea**

Ikastetxeak ixtearekin jantokiak itxi egin dira. Beraz, zerbitzu hori jasotzen duten ikasleek ez dute bazkalorduko otordua izango. Honek arazo bat dakar: ikasle batzuk, egoera zailenetan egon daitezkeenak, jantoki-beka dutenek... ez dute egunean behin ziurtatuta duten otordua (eskolako bazkaria) bermatua izango.

Beste ikasle batzuk, bekadunak ez izan arren, euren gurasoak (tutoreak) lanera joan behar direlako ezin izango dute bakarrik bazkaldu. Janaria prestatzeko laguntza beharko dute eta ez dute elikatzeko berme hori ziurtatua.

Honen aurrean, erantzuna emate aldera, Eusko Jaurlaritzak eta Kataluniako Gobernuak, besteak beste, jantoki-bekak mantendu ditu. Baina horrek ez du arazoa erabat konpontzen, familia batzuei ez baitzaizkie laguntzak iristen.

Azken finean, COVID-19 pandemia krisi honen aurrean hartutako hezkuntza-irtenbidea ikasle eta familia prototipo bati begira eraiki dela ikusi ahal izan dugu, eta ez dira kontuan izan egoera kaxkarrean dauden bestelako kolektiboak. Etorkizun batean, martxan jarri den hezkuntzarako irtenbidea berrikusi beharko litzatekeela iruditzen zaigu. Teknologiaren aroan bizi garen garai honetan, denok teknologiara heltzeko aukera bera ez dugula agerian geratu baita.

Badakigu hauek konpontzeko neurri asko Hezkuntza Sailak hartu beharko lituzkeela, eman litezkeen egoerak ekiditeko. Baina Donostiako Udalak, hauetako batzuk haren gain hartu beharko lituzke, egun Donostiako ikasle askok bizi duten egoera hau ekiditeko. Jarraian, guztiz gauzagarriak diren zenbait proposamen zerrendatuko ditugu, eragile sozial eta politiko desberdinen eta hezkuntza-komunitatearen artean adostu beharko liratekeenak, eta, nolahi ere, osasun-berme guztiekin gauzatu beharko liratekeenak, birusaren hedapenari eustea baita gaur egun gizarte osoaren lehentasuna.

### **Ordenagailua doan alokatzeko aukera**

- Horretarako, aldez aurretik lan bat egin beharko litzateke, eskola bakoitzean behar hori duen ikasleak identifikatu beharko lirateke eta kuantifikatu.
- Eskoletan dauden ordenagailuak ere eskuratu daitezkeen aztertu beharko litzateke, eta baita ere ikastola pribatuek soberan dituztenak ere.
- Publikoak (udal liburategietakoak, IKT gelatakoak...) diren ordenagailuak beharra duten ikasleen artean banatu beharko lirateke.
- Banaketa hori egiteko hainbat bide egon daitezke: udaltzainak, babes zibileko langileak edo jada auzoka antolatu dauden zaintza sareak.

### **Wifia unibertsalizatzea**

- Donostiako Udalak bere udal wifi sarea ikasle guztiei irekitzea proposatzen dugu.
- Sare hau iristen ez den familientzat, Udalak hainbat telefono-konpainiarekin duen hornidura-kontratua aldatzea proposatzen dugu, Internet zerbitzua doan eskaini dezan.

- Horrela ez bada, egun [Izarkom Kooperatibak](#), eskaintza berezia egin du behar den ikasleei Internet helarazteko. Aurreko neurriak egin ezean, Izarkomekin harremanetan jartzea proposatzen diogu Donostiako Udalari (Zumaia eta Errenteriako Udalak, esaterako, dagoeneko egin dute)

### **Eskola-materialerako sarbidea bermatzea**

Ohiko eskola-materiala ere banatu beharko litzateke beharrezkoa duten familien artean, izan ere, ikasle batzuek eskolan duten materiala soilik dute lanerako. Hau ere ordenagailuak iritsiko ez diren familietan egiteko neurria izan daiteke.

- Lanak on-line banatu beharrean, etxez etxe paperean banatzea behar duten familiak identifikatu beharko lirateke. Euskal Herriko beste herri batzuetan ere egiten ari dira, eta udaltzainek banatzen dute material hori etxeetara (Asteasu, Segura, Ermua, Astigarraga ...).
- Donostiako kasuan, bere dimentsioagatik, Udaltzaingoaz gain, banaketa hori babes zibileko langileek edo auzoetan jada antolatuta dauden zaintza sareek egin dezakete. Izan ere, Donostian lan hori auzoka egin daiteke, eta horretarako Udal Gobernuari lan hau eskolekin batera kudeatzea proposatu nahi diogu.

### **Laguntza eskaintzea**

- Momentu honetan itxita dauden udaleko zerbitzu publikoetako (haurtxoko, gazteleku...) hezitzaileak, edo bestelako laguntza eman dezaketen langile publiko eta haien lana etena dagoena, laguntza behar duten ikasleei eta familiei bideratzea. Ordenagailu bidezko banakako laguntza telematikoa emateko.
- Beste aukera bat, dagoeneko sortu diren boluntario sareekin koordinatzea litzateke, eta haien bidez banakako laguntza eskaintzea.

### **Bazkaria ikasle guztiei bermatzea**

Eusko Jaurlaritzak jada onartu du jantoki-beka duten ikasleei jantoki-zerbitzua etenda dagoen bitartean laguntza horiek mantentzea, beraz dagozkion laguntzak ordaintzen jarraituko da. Baina laguntza horiek zuzenean familietara ez iristea gertatu daiteke. Hori gertatzen den bitartean edo gertatuko balitz, Donostiako Udalak ondorengo neurriak har ditzake:

- Ikastetxeko jantokian izena emanda duten ikasleen zerrenda eskatzea Eusko Jaurlaritzari, eta bertatik hala eskatzen dutenei orain arte eskolak hornitzen zituen catering enpresak etxez etxeko zerbitzua bermatzea, osasun-segurtasun neurri guztiak betez.
- Aurreko neurriak langileen segurtasun-neurriak bermatzen ez dituela ondorioztatuko balitz, zerbitzu hori udalaren bitartez ematea, besteak beste, ‘zaintza sareak’ honen zerbitzura jarritz ere. Adibidez, orain arteko catering enpresak beharrezkoak diren menuak egin, udalaren esku utzi, eta udalak egokien eta seguruan ikusten duen bezala ikasle horiei eramatea.
- Edo diru-poltsa bat sortzea sareetako boluntarioek elikagaiak eramateko haur horiei.

Eta Donostiako Udalaren eskumen zuzenak alde batera utzita, uste dugu erabaki politiko batzuk premia hartu behar direla, bakoitzak bere erantzukizun-esparruan:

### **Hezkuntza eta aukera berdintasuna**

- Ez-ohiko egoera bizi dugun honetan, hezkuntzan ere ez-ohiko neurriak hartu beharko lirateke. Hori horrela EH Bildutik **eskola-egutegia etetea** eskatzen dugu. Horrela, inor ez da bestearen aurretik joango. Momentu honetan familiek eta ikasleek zaintza behar dute. Neurri drastikoa da, baina egingarria. Neurri hau batxilergoko 1.º ikasturtera arte aplikagarria izan daiteke. Krisi egoera honetan ezinezkoa baita, eskola barruan egiten dena on-line egin nahi izatea, ikasle guztiak ez direlako berdinak eta ez delako gauza bera Haur Hezkuntzako ikaslea izatea edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako. Honen aurrean, erantzuna emate aldera, Kataluniako Gobernuak<sup>3</sup> eskola egutegia eten du eta klaseek ez dute aurrera jarraituko aukera berdintasuna mantentze aldera.

### **Konfinamenduaren ondorioak arintzeko neurriak**

- Donostiako Udalak COVID-19 pandemia krisiaren neurriak direla eta haurrekiko orokorrean hartu den jarrera aztertzea nahiko genuke. Berez haurren kolektiboa, kolektibo ahula da eta babestu beharrekoa, baina neurriak ezarri direnean, Administrazio maila desberdinen aldetik hori ez da kontuan izan. Haurren eskubideak guztiz ahaztu ditugu, haur guztiak etxean sartu ditugu eta kaleetatik desagerrarazi.

---

<sup>3</sup><https://www.lavanguardia.com/vida/20200312/474100693972/coronavirus-clases-bargallo.html>

Norwegian, adibidez, bertako lehen ministroak, Hezkuntza ministroak eta Haurtzaro eta Familia ministroak prentsaurreko bateratua eman zuten, hurrei zuzendua. Hemen, berriz, Eusko Jaurlaritzak eta EITBk bi aste behar izan ditu umeei hezkuntza-prozesuan laguntzeko egokitutako programazio bat martxan jartzeko. Neurria ona da, baina berandu dator eta ez da nahikoa.

- Konfinamenduari dagokionez, umeak ez dira helduak bezalakoak, eta behar bereziak dituzte: aire librean egoteko beharra, mugitzekoa, argi naturala jasotzekoa eta jolastekoa. Esaterako, ez da gauza bera balkoia duen etxe batean edo ez duen batean bizitzea, eta badakigu ere hiriguneetan direla hau gehien bat pairatuko duten hurrek, eta Donostiako haur gehienak azkeneko egoera honetan aurkitzen direla gogorarazi nahi dugu. EH Bilduren iritziz, une hauetan lehentasun nagusia birusaren hedapena gelditzea da, baina behin helburu hori lortuta, eta konfinamendua altxatzeko neurri progresiboak hartzen hasten direnean, haurren beharrei erantzutea lehentasuna izan behar da.
- Konfinamenduaren ondorioz, beldurra, antsietatea, konzentrazio falta, lo zailtasunak... areagotuko dira haurren artean, baina ondorio fisikoak eta erlazio sozialak ere kaltetuak izateko arriskua dute. Aktore politiko eta sozial guztiek, bai eta hezkuntza-komunitateak ere, kontuan hartu beharko dituzte haurren osasun psikosozialean eragindako ondorioak
- Gogorarazi behar dugu konfinamendua hasi zuten lehenak haurrak izan zirela eskolak itxi zirenean, eta azkeneko albisteen arabera, behin konfinamendua altxatuta haurrak izango direla azkenetarikoak haien egunerokora (eskoletara) bueltatzen. Hori horrela, Donostiako Udalari eskatu nahi diogu, krisi honen erdian haurren egoeraz hausnartu dezan. Donostiako hurrek dituzten eskubideak kontuan izateko eta egoera honek haiengan izaten ari den eragina txikiagotzeko neurriak har ditzan: bai etxean konfinamendua arintzeko, sozializazioan laguntzeko...